

Urtzi Otaegi Lopetegi

A maila • 1 saria

Kaixo, Urtzi Otaegi Lopetegi nauzue, Jakintza Ikastolako ikasle ordiziarra. Nire zaletasun handienak kirolak dira, baina horrez gain badut beste zaletasun bat bertsolaritza deitua. Bertsolaritza ideiak adierazteko modu polita bezain eraginkorra iruditzen zait eta horregatik erabaki dut bertso sorta hau egitea. Azken finean, euskara eta Euskal Herria maite ditut, baita hauen alde borroka egiten duen oro, eta horregatik aukeratu dut motxiladun umeen gaia. Ume hauek errudunak ez izanda ere astebururo milaka kilometro egin behar izaten dituzte aita zein ama ikusteko. Espero dut haur horiengatik eginiko bertsoak gustatzea.



Doinua: Mutil koxkor bat

MOTXILADUN UMEAK

Astebururo hainbeste tunel,
horrenbeste bihurgune!
Kondenatuta dagon edozein
euskaldunen ume xume.
Familiენტzat bihurtu dira
sarri kartzelak bilgune.
Horiek betez utzi dituzte
hainbat desgrazi, hutsune...
Distantzi handiz daude urrunduta
88 ume.

Juan Carlos edo Alltsasukoak,
zer alde dago tartean?
Puigdemont ere ezin ahaztu
auzitegia aipatzean.
Nahiz gobernuak nahiz epaileek
omen duten kontrolpean,
ustelkeria eta gezurra
daramatzate barnean.
Legea sarri erabiltzen da
interesen mesedean.

BERTSOAK

Aita ta ama daude alboan
jaio ginen egunetik.
Latz den edozer samur bihurtu
ohi digute txikitatik.
Hezi gaituzte haien maitasun
eta oinarrietatik,
baina bereek ezin dutenez
hurbil egon Bizkaiatik
Iratik ez du hori izango
batzuen erruagatik.

Gurasoekin gatibu zeunden,
hura zen zure baldintza.
handik atera, eta Madriden h
asi zenuen bizitza
aitona-amonek hartu zuten han
zure kustodia, zaintza.
Baloreak ez dituzu ahortzi,
injustiziei ekintza!
Nire eredu bihurtu zara;
eskerrak bihotzez, Intza!

Martutenera, Bilbora edo
Baionara beharrean,
El Duesorantza, Pariserantza
poliziaren kotxean.
Sendientzako zigor galanta
eta ez daude espetxean;
errudun ez den jendea dugu
epailearen menpean.
Gatibu egon behar badira,
utzi itzazue etxean.

BERTSOAK

“Kontziente gara, edo ez gara”
eraginaz buruari,
haurtzarotikan galdu dituzte
bizipen eder ugari.
Mezu hau eman nahiko nioke
gaur egungo munduari:
denon artean lagun ditzagun
haien borrokaren sari!
Txapela jarri diezaiozun
ume hauen jarrerari!